DATORRENA

Gris, marroi, urdin, berde eta gorriak

IRATXE URIZAR > 3

SATURRARAN: Emakumeen kartzelako horma eraitsiek zer kontatu asko dute > 10

GAUR8

2016ko uztailaren 9a | X. urtea • 475. zbk.
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

MILA ZALE ATXILOTUTA EUROKOPAN

Futbol gutxi eta istilu ugari utzi digu bihar amaitzen den Eurokopak. Frantses Estatuko agintariek emandako datuen arabera, txapelketa ekainaren 10ean hasi zenetik milatik gora lagun atxilotu dituzte borrokan aritzeagatik. Errusiarrak nabarmendu dira. > 4

GAUR8
mila leiho zabalik

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Xabier Izaga Gonzalez. **Argitaratzailea:** Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxa: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.

Mila atxilotu eta dozenaka zauritu Eurokopan 04

Saturrarango kartzela eraitsiak zer kontatu asko du 10

In fraganti: Roberto Landa «Mundina» 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 31

SINADURAK:

03 **Iratxe Urizar:** Gris, marroi, urdin, berde eta gorriak
08 **Unai Fernandez de Betoño:** Barnera haztea, haztea da
09 **Mikel Zubimendi:** Etorkizun hobea argitzea da arima zartatuen sendabidea
14 **Amaia Ballesteros**
16 **Gorka Zozaia:** Lurrin lagin bat
17 **Iker Barandiaran:** Bisitarien eta aisialdiaren markak
21 **Maider Iantzi:** Gora jaia!
21 **Xabier Mikel Errekondo:** Politikaren dantza erotikoa
22 **Iratxe Esnaola:** Eduki suntsigarrien aroa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA

Gipuzkoako Foru Aldundia

{ datorrena } **Iratxe Urizar**

Gris, marroi, urdin, berde eta gorriak

Eusko Jaurlaritzak, Paco Etxeberria eta bere taldearen eskutik, torturaren inguruko ikerketa aurkeztu berri du Donostian antolatutako nazioarteko konferentzia batean. Bertan, zigilu ofiziala jaso dute, teknikoki eta zientifikoki ezarria, 1960 eta 2013 bitartean 4.000 euskal herritar baino gehiagok sufritutako tortura salaketek. Zenbaki beldurgarria, populazioaren portzentaje handi batek pairatutakoa izanik, beste aldera maiz begiratu duen gizarte omen demokratiko batean.

Aurkezpenerako jardunaldietan Elisabeth Lira txiletar soziologoak hartu zuen parte. Vallech batzordean egon zen lanean Lira, Txileko diktaduraren garaian emandako tortura kasuak biltzen dituen lan mardula eginez. Bere hitzetan, torturak intzestuaren antza dauka. Familiak ezin du intzestua onartu familia ulertzen den moduan existitzen ez dela onartzea litzatekeelako, eta gizarteak ere torturaren existentzia bera ukatzen du, onarpena gizartea eta horren baloreak amildegira botatzea bezalakoa litzatekeelako. Baina ez onartzeak ezinezko egiten die torturaren biktimei beren bizitza berregiteko aukera. Gainera, beharrezko oinarri legal eta kulturalak (adi erabilitako terminoari) ezartzea ezinbestekoa da tortura planteatzea bera ere ezinezko bihurtu eta berriro gertatuko ez dela bermatzeko.

> Orkatz Gallastegi, Ertzaintzak atxilotua, 26 urteko espetxe zigorra betetzen ari da, bere autoinkulpazioa bada ere horretarako oinarri bakarra. CATek bere kasua salatu zuen, baina horrek ez zuen auzia berrireki

Hitza hartu zutenen artean Jorge Aldekoa polizia burua ere egon zen. Aurkeztutako txostenean Ertzaintzaren 300 kasu jasotzen dira (eta kontuan hartu ikerketaren denbora esparrua: Ertzaintza denbora epe mugatu batean baino ezin da agertu, atxiloketa inkomunikatuak egiteko eskumenik ez zuen lehenago-eta). Kasu ugari dira 300, kasu isolatuak izatetik urruti. Bada, Aldekoak giza eskubideen abangoardian dagoen gorputz polizial gisa deskribatu zuen Ertzaintza, eta nazioarteko erakundeek maiz zoriondu izan dutela esan zuen. Publikoaren artean Juan Mendez Nazio Batuetako Torturaren Aurkako esatariak adi entzuten zuen, eta benetan interesgarria litzateke jakitea zer pentsatzen ari zen. Izan ere, berak ondo daki zer-nolakoak ziren urteesan nahi hori izan zenik Ertzaintzaren aurkako lehenengo salaketa, torturak Estrasburgoko Auzitegiak bere lehenengo epaia eman zuenean hasi ez ziren moduan.

Gaur egun prestatzen ari den "Errepresio ilizitoen" inguruko lege proiektuak 1999. urtera bitarte jasotako salaketak baino ez ditu aztertuko. TATen arabera, 1999. urtetik gaur egunera 716 pertsona dira torturak salatu dituztenak. Hortaz, eta epe hori ezarrita soilik, 716 pertsona kolpean errekonozimendu gabe geratuko dira. Ez du ematen, beraz, errekonozimenduaren bidean pausu egokia denik. Izan daiteke, agian, data horren ostean aitortzen diren biktimen kasuetan torturen preskripzioa oraindik eman ez delako eta euren kasuak berrirekiak eta berrepaituak izan litezkeelako eta, beraz, benetako neurri efektiboak hartzeko bidea irekiko litzatekeelako erantzuleak bilatu eta epaitzeko? •

ro-urtero bere bulegoan jasotzen zituen Ertzaintzak atxilotutakoen testigantzak. Eta jakin badaki ere nola salaketok ez diren ikertu, erantzuleak inoiz ez diren epaitu, biktimak inoiz ez diren aitortu. Litekeena da Mendezek buruan izatea Orkatz Gallastegiren kasua, Ertzaintzak atxilotu eta egun 26 urteko espetxe zigorra betetzen ari dena, horretarako bere autoinkulpazioa beste oinarririk ez bada ere. Orkatzen kasua CAT Nazio Batuetako Torturaren Aurkako Batzordeak salatu zuen, baina horrek ez zuen kasua berriz irekitzea suposatu.

1999TIK 716 LAGUNEK EGIN DITUZTE TORTURA SALAKETAK

Aurkeztutako ikerketak jasotzen dituen salaketak 1960 eta 2013 bitartekoak dira, eta Espainiako Poliziaren, Guardia Zibilaren eta Ertzaintzaren aurkako salaketak biltzen ditu. CATek Orkatzen kasua onartzeak ez du

atzerria

{ txostena } **Jose Angel Oria**

FUTBOLA ETA INDARKERIA

Mila atxilotu eta dozenaka zauritu izan dira zaleen arteko borroketan bihar amaitzen den Eurokopan

Bihar amaituko da Eurokopa, ISISeko jihadisten jomugan egon zitekeen futbol txapelketa jendetsua, Hollanderen Gobernuak ezarri nahi duen lan erreformaren aurkako mobilizazioen erdian. Txapelketako lehen astean zaleen arteko indarkeria izan zen gauzarik aipagarriena, ikaragarriena; batez ere Errusiak eta Ingalaterrak Marseillan jokatu zuten partidaren harira izan ziren borrokak. Erasoen protagonistek beraiek zabaldu dituzte borrokon grabazioak, Eurokoparen izen ona kaltetzeko helburuarekin, nahiz eta UEFAko antolatzaileak tankera horretako irudiak zabaldu ez zitezen ahalegindu. Alfer-alferrik ordea.

«Gustatu ala ez, indarkeria futbolarekin lotuta dago», esan zion Carles Viñas adituak GARA egunkariari. Pompeu Fabra Unibertsitateko irakasleak gaiari buruzko bi liburu idatzi ditu. Honela esan zion Joseba Vivancori: «Ezinezkoa da futbola bere testuinguru politikotik aldentzea. Lehiaketa estatuen artekoa denean, garaipenak Gobernuak baliatzen ditu aberriaren ideiaren inguruan herritarren arteko kohesioa indartzeko». Viñasen ustez, gatazkaren bat dagoen bakoitzean –laborala, nazionala edo geografikoa izanda ere–, egoera horrek isla izango du futbolean.

Vivien Couzelas "Hooligan baten buruan" izenburuko liburuaren egileak nabarmendu du ultra guztiak ez direla berdinak, batzuei borrokak baino ez baitzaizkie interesatzen, beste batzuek futbolari lehentasuna ematen dioten bitartean. Hooligan horietako batek esan omen zion bera ez zela ultra bat, estadiora futbola ikustera joaten zen zalea baizik, eta gero hartu zuela beste bide arriskutsu hori.

Marseillako zaleen erasoak

Marseillan izan dira istilurik larrienak. Ingalaterrak Errusiaren aurka jokatu zuen Mediterraneoko hirian eta oso borroka gogorrak izan ziren, estadioan bertan zein kanpoaldean. Hedabide askotan ingelesen eta errusiarren arteko borrokak aipatuta lasai asko geratu dira, baina egun hartako irudiak eta bideoak ikustea nahikoa da gauzak beste era batean gertatu zirela konturatzeko.

Couzelasek Euronews telebista kateari esan dionez, zale ingeles gehienak futbol partida bat ikustera joan ziren, beraien jokalariak animatzera, ez borrokara. Izan ere, Poliziak identifikatuta dauzkan ultra ingelesek (Alemaniako eta Herbehereetakoekin batera, Europako zalerik arriskutsuenak dira polizien arabera eta horietako ehunka dituzte fitxatuta) ez dute izan frantses Estatura joateko aukerarik, eta horrek, seguru asko, Ingalaterrako hooliganen arriskua erabat murriztuko zuen.

Infernua, larunbatean

Zer gertatu zen orduan, egoera horrenbeste gaiztotzeko? Dozenaka zauritu izan ziren, horietako bat oso larri. Partida larunbatean izan zen, ekainaren 11n, baina ostegunerako bazen arazorik Marseillan. Hiriko Olympique futbol taldeko zaleek botilak jaurti zizkieten ingelesei kai zaharraren inguruetan, eta mozkor-mozkor eginda zeuden kanpotar batzuek erantzun egin zieten. Begirale batzuek esan dute hasierako erasotzaileen helburu nagusia kanpoko zaleei kartera, telefonoa edo ahal zuten guztia lapurtzea zela, eta zutik egoteko gauza ez diren zale horiek oso biktima errazak dira, arazorik eragiten ez dutenak. Eta poltsikoa lodi-lodi izaten dute. Ostiralean ere tankerako arazoak izan ziren, baina erabateko infernua larunbatean iritsi zen.

«Errusiar batzuk borroka bila joan ziren Marseillara eta ondoren bertako zale batzuek esku hartu zuten gatazkan, ingelesekin aspalditik zituzten kontuak

56

Ekainaren 10ean hasi zen Eurokoparen inguruko istiluak direla-eta, milatik gora pertsona atxilotu dituzte, indarkeriarekin lotutako jarrerengatik. Atxilotu horietako 600 pertsona inguru egun batzuk eduki dituzte giltzapean. Premiazko prozedura erabilita egindako epaiketetan 56 lagun zigortu dituzte epaileek

35

Ingalaterrako eta Errusiako 34 zale kanporatu dituzte zaleen arteko borroken eraginez. Borroka horietan 35 pertsona zauritu zituzten, gehienak ingelesak

Poliziak Andrew Bache larri zauritutako zale ingelesa laguntzen, ekainaren 11n. Uztailaren 1ean eraman zuten etxera.
Tobias SCHWARZ | AFP

Hurrengo orrialdean, herrialde ezberdinetako zaleen aurpegiak.
AFP

tarteko», Vivien Couzelasek egin duen irakurketaren arabera.

Istiluak saihestu nahian frantses agintariek alkohola saltzea debekatu zuten. Kasu askotan horrelako neurri batek indarkeria murrizten lagundu dezake, arazoa erabat konpontzera iritsi gabe. Baina Errusiatik borrokara propio etorritako ehunka zalek (300en bat, asko jota) ez zuten bat egiten hooliganen betiko ezaugarriekin: ingelesen bila abiatu aurretik ez zuten ezer edan, beraiek grabatu dituzten bideoetan garbi ikusten denez.

Zale ingeles batzuk, mozkor-mozkor eginda, zutik egoteko gauza ere ez ziren. Are gutxiago borrokan arrakasta izateko aukeraren batekin hasteko. Besteak, aldiz, Ingalaterrako hedabideek nabarmendu zutenez, Eurokopara joan aurretik "entrenamendu" edo "*casting*" modukoak egin zituzten Errusian bertan. Gainera, beraien asmoa oso garbi azaltzen zuten kamisetak prestatu zituzten: "*Tour de France. Fuck Euro 2016. Storm over Europe 2016. Orel Butchers*". Hala, "Oriolgo harakinek" egindako elastikoak garbi uzten zuen "ekaitza" eragin nahi zutela Eurokopan. Baita lortu ere.

«Oriolgo harakinak»

Orel Butchers izeneko taldekoak Errusiako bigarren mailako Oryol futbol taldearen jarraitzaileak dira. Oriol hiria Moskutik 360 kilometro ingurura dago, hego-mendebaldean. Mosku hiriburuko Spartak eta Lokomotiv bezalako taldeen jarraitzaileekin batera joan ziren Eurokopara. Marseillan eta Lillen borrokan ibili ondoren, egindakoaren berri eman zuten sarean. Bere garaian "Testosterona" izeneko aldizkaria plazaratzen zuten, ideia arrazistak zabalduz: Kaukasoko jatorriko zaleak askotan izaten dituzte jomugan.

Jose Manuel Rios Corbacho zuzenbide penalean adituak "La Vanguardia" Bartzelonako egunkariari azaldu dionez, Errusiatik datorren futbol indarkeriak orain arteko eskema guztiak apurtzen ditu: «Ez dute zerikusirik eredu klasikoarekin, hau da, talde aurkariek estadioaren sarreran egiten zuten hitzordua beren kamiseta eta leloekin, eta mozkortu egiten ziren mutur joka hasi aurretik. Hori zen ingeles eredua eta ingeles askok gauza bera egiten dute selekzioa animatzera joaten direnean ere, asko edaten jarraitzen baitute. Errusiarrak ez dira horrelakoak; prestakuntza paramilitarra izaten dute, eta arma salerosketa eta bestelako delituetan ere nahastuta egoten dira. Dirudunek askotan erabiltzen dituzte bizkartzain moduan».

Ildo berean, Ronan Evain doktoreak "L'Equipe" Parisko egunkariari esan zion "hooligan" hitza bera ez dela egokia errusiar horientzat, «ondo antolatutako komandoak osatzen baitituzte». Bere ustez, eskuin muturrekoak dira eta "lan" ezberdinak egiten dituzte, nahikoa diru emanez gero: «Kazetari ezerosoak, giza eskubideen aldeko ekintzaileak eta disidenteak egurtu, esaterako». 25 eta 35 urte bitartean izaten dituzte, eta horien artean ez da tripa-handirik izaten. Ingelesen artean, gehienak.

«Ingelesak atzelariak direla frogatzera etorri gara», zioten ustezko zale horiek, homofobia ere beraien ezaugarrien artean dagoela agerian uzteko.

Vladimir Kozlov idazle bielorrusiarrak "Fanaty" izenburuko liburua argitaratu zuen 2008an, Errusiako zale biolentoen inguruan. Marseillako istiluak direla-eta Vice News hedabidean argitara eman duen artikulu batean esplikatu du fenomenoa berria dela Errusian, Sobietar Batasunean ez baitzegoen horrelakorik. Berak egin dituen kalkuluen arabera, ez ziren pertsona asko: 70 eta 250 artean, besterik ez. Klub ezberdinen zaleak izan arren, elkarrekin joan ziren Eurokopara, selekzioa animatzera. «Alemaniarren, poloniarren eta ingelesen izenik oraindik ez badute ere, duela gutxi Europako mendebaldera joaten hasi dira beraien klubekin eta esku hartu izan dute liskarretan. Hala ere, normalean oso zale gutxi izaten direnez, alarma handirik ez zen eragin».

Agintariek, txalotu

Kozlovek gogora ekartzen du orain lau urte, Polonian eta Ukrainan egindako Eurokopan, Errusiak Poloniaren aurka jokatu zuela Varsovian: «Orduan 5.000 gizon errusiar joan ziren erdigunetik estadiora. Zaleen arteko borroka batzuk izan ziren, Polizia negar gasa eta gomazko pilotak botatzen hasi zen arte. Bertako agintariek eta hedabideek poloniar zaleei leporatu zieten ardura, eta gertakaria berehala ahaztu zen».

Vladimir Kozlovek berak eta beste begirale askok nabarmendu dute errusiar ustezko zale horiek txalotu egin dituztela agintari batzuek. Vladimir Markin Errusiako Ikerketa Batzordeko prentsa arduradunak, esaterako. Brice Robin Marseillako fiskalak adierazi zuen errusiar zaleak «borrokarako prestatuta» iritsi zirela hirira, eta Markinek zera erantzun zion, sare sozial baten bitartez: «Mutil normal batek, seguru asko, harritu egingo ditu. Gay harrotasunaren desfileko mutilak baino ez dituzte ikusten».

Igor Lebedev Duma Errusiako Parlamentuko presidenteordeak ere ondo ikusi zituen Eurokopara joandako zaleak: «Erradikalen arteko borroketan ez dut gauza txarrik ikusten. Alderantziz, gure mutilek oso lan ona egin zuten. Jarraitu horrela!».

2-0

Portugalek asteazkenean lortu zuen finalerako txartela, Galesko selekzioari 2-0 irabazita. Bi selekzioetako zaleen arteko borrokak izan ziren, baina egoera ez zen gehiegi gaiztotu

«Tour de France. Fuck Euro 2016. Storm over Europe 2016. Orel Butchers» irakur zitekeen Errusiako ustezko zale batzuek eraman zituzten elastikoetan. Beheko irudian, errusiarrak Marseillako Velodrome estadioan.
GAUR8

Errusiako herritar batzuek bat egiten dute jarrera horiekin, eta diote ingelesek probokatu zituztela errusiarrak, Putin eta Errusia irainduta: «Badakit ez garela Europaren gustuko. Gutxienez hemendik aurrera beldurtu egingo ditugu», adierazi zien kazetariei Moskuko 40 urteko gizon batek.

Beste errusiar batzuk, berriz, lotsatuta daude: «Lotsa ematen dit. Animaliak dirudite. Horregatik atzerrira joaten naizenean ez naiz eroso sentitzen Errusiakoa naizela esanda».

Alemaniako neonaziak

DW Deutsche Welle Alemaniako hedabideak salatu du UEFA erakunde antolatzaileak indarkeria irudiak ezkutatzeko duen jarrera. Gogora ekartzen du Marseillako estadioan izandako borroken berri telebistako esatari alemanari esker izan zutela alemanek, antolatzaileek ez baitzuten irudirik eskaini. Gainera, gogora ekarri du Lillen Alemaniak eta Ukrainak jokatu zuten partida hasi aurretik, Alemaniako bandera zeramatzaten 50en bat zalek jarrera lotsagarria izan zutela, «hiriko plaza nagusian ikur neonaziak erakustera iritsiz. Alemaniako hedabideek horren berri eman zuten, Eurokoparen aurpegi ezkutua agerian jarriz, UEFAk ofizialki azaldu nahi ez duen hori agerian utziz».

DWkoek uste dute Europan azken urteotan nagusitu den krisiak, gazteek aurrera ateratzeko aukerarik ez ikusteak, eragin duen frustrazioa dagoela Eurokopako istiluen atzean. Edonola ere, Eurokopan izan diren zale gehienak ez dira borrokara joan, ondo pasatzera baizik. Eta horien artean, guztiek nabarmendu dituzte Irlandako bi selekzioen zaleak, eta Islandiakoak. Horko gazteek ez al dute frustrazio ekonomikorik? Alkoholak ez al die kalterik egiten?

Bideo barregarriak

Irlandako Errepublikako zaleek asko edan dute Estatu frantsesean, baina irakurleak sarean aurkituko dituen bideoetan ez da borrokarik ikusten, ondo pasatzea eta pasaraztea zer den oso ondo dakiten herritarrak baizik: beraiek sortutako hondakinak txukun-txukun jaso zituzten; trenean erdi lotan zegoen jaioberriari lo kanta abestu zioten; adineko moja bati, "Gure Aita"; frantses Poliziak dantzan ipini zituzten...

Irlandako iparraldeko selekzioa animatzera joandakoek ere nabarmentzeko moduko jarrera izan dute, eta beraiek lortu dute beraien abesti bat Eurokoparen ereserki ez ofiziala bihurtzea. Wigan Athletic taldeko zale batek bere etxeko egongelan eta pandereta baten laguntzarekin abesti ezagun eta zahar bat, Gala Rizzato italiarraren "Freedom for Desire", moldatu zuen, Will Grigg jokalariaren izena erabilita (Eurokopan zegoen, baina entrenatzaileak ez zuen atera jokatzera). Bideoa ikaragarri hedatu zen sarean. Zaleak abestia aldatu ondoren, honela geratu zen leloa: "Will Grigg bolada onean dago, zure defentsa ikaratuta dago". Ipar Irlandako selekzioaren zaleek bat egin zuten ereserki berriarekin eta partidak hasi aurretik, hasi eta gero eta amaitzean ere etengabe kantatzen zuten, bazter guztietan, normalean pinta garagardoa eskuetan zutela.

Atxilotu eta zigortu ugari

Bernard Cazeneuve Barne ministro frantsesak aste honetan bertan eskaini dituen datuen arabera, ekainaren 10ean hasi zen Eurokoparen inguruko istiluak direla-eta, milatik gora pertsona atxilotu dituzte, indarkeriarekin lotutako jarrerengatik. Atxilotu horietako 600 lagun inguru egun batzuk eduki dituzte giltzapean. Premiazko prozedura erabilita egindako epaiketetan 56 pertsona zigortu dituzte epaileek.

Gainera, Bernard Cazeneuvek erantsi zuen Ingalaterrako eta Errusiako 34 zale kanporatu zituztela zaleen arteko borroken eraginez, batez ere Marseillan ekainaren 11n izandako istiluengatik. Borroka horietan 35 pertsona zauritu zituzten, gehienak ingelesak.

Eurokopa dela-eta, 90.000 lagunek osatutako segurtasun zerbitzua prestatu zuten agintariek. Horietako 72.000 inguru poliziak eta jendarmeak ziren.

250

Vladimir Kozlov idazle bielorrusiarrak «Fanaty» izenburuko liburua argitaratu zuen 2008an, Errusiako zale biolentoen inguruan. Marseillako istiluetan, berak egin dituen kalkuluen arabera, ez ziren errusiar asko izan: 70 eta 250 artean, besterik ez

50

Lillen Alemaniak eta Ukrainak jokatu zuten partida hasi aurretik, Alemaniako bandera zeramatzaten 50en bat zalek jarrera lotsagarria izan zuten, hiriko plaza nagusian ikur neonaziak erakustera iritsiz

info+

• Errusiar «zale» batek grabatutako bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=VDgjVdJtlFY

• Ipar Irlandako zaleen «ereserki» berria:
https://www.youtube.com/watch?v=eOpGCGtCVsE

Narinder NANU-Simon MAINA | AFP

IKUSMIRA

RAMADANA ULERTZEKO BESTELAKO ERA

Aste honetan amaitu zaie ramadan hilabete sakratua munduan bizi diren 1.500 milioi musulman ingururi. Irudiotan musulman gehienek egun horiek nola ulertzen dituzten ikus daiteke: goikoa Indiako Amritsar hirian hartutakoa da eta bertan umeak elkarri besarkada ematen ageri dira, katolikoek beren ekitaldi batzuetan egiten duten antzera; behekoa Kenyako Nairobi hirikoa da eta atzeko aldean ikusten diren apaingarriek Euskal Herriko leku gehienetan Eguberrietan jartzen direnak ekartzen dituzte gogora. Beheko argazkian nabarmentzekoa da azaltzen diren musulmanen azalaren koloreak ez duela zerikusirik goiko karteletan ikus daitezkeen ume horien kolorearekin, islama oso urrutitik inportatutako erlijioa dela gogorarazteko. Atzeko kartel horietako batean, eskuinekoan, Medinako Profetaren Meskita ikusten da, jihadistek aste honetan bertan erasotako tenplua. Abu Bakr al-Baghdadi ISIS Estatu Islamikoko buruak ramadanean erasoak egiteko agindu zuen, eta atentatuak bazter guztietan izan dira.

joseangel.oria@gaur8.info

Unai Fernandez de Betoño - @UnaiFdB
Arkitektoa

Barnera haztea, haztea da

Azken txanpan sartu da Gasteizko azken birdentsifikazioaren plangintza ikaragarria. Iragan ekainaren 27an EAJk, PSEk eta PPk argi berdea eman zioten haren birpartzelazio proiektua zehazteko prozesuari, zeinak 11.000 etxebizitza berri gehiago eraikitzeko balioko duen. Hamaika mila. Zorabiatzeko moduko kopurua, egungo testuinguruan guztiz ulertezina. Zertarako hainbeste adreilu, dagoeneko erraldoiak diren (eta oraindik amaitu gabe dauden) Salburua eta Zabalgana auzo berrietan?

Barnera haztea ekologikoena omen delako, esandako alderdi politikoen arabera. Eta egia izango da, hazteko beharra egonez gero: lurzoru gehiago urbanizatu ordez, aukeran hobea dirudi jada urbanizatuta dagoena birdentsifikatzea. Baina ez da hori Gasteizko egoera urbanistikoa, inondik inora. Azken birdentsifikazioak gehituko dituen 11.000 etxebizitza berri horiek zenbatu gabe 22.000 etxe baitaude dagoeneko planifikatuta. Aski eta sobera hurrengo (hogei, hogei eta bost?) urtetarako, bilakaera demografikoari begiratuta.

Birdentsifikazioa egokia litzateke oraindik urbanizatu gabeko lurzoruen desklasifikazioekin batera planteatuko balitz. Toki batean etxe gehiago egin (Ibaialdeko eta Arkaiateko 11. eta 12. sektoreetan, adibidez), bestean eraikitzeari uko eginez (Aldaiako 5b sektorean eta Olarango 14. sektorean, kasu). Baina ez da horrela pentsatu. Betiko bi argudioengatik, bereziki: batetik, planaren aldaketarako beranduegi omen delako (ekintza burutuen politika), eta, bestetik, hirigintza-desklasifikazioen kontra epaitegietara jo omen dezaketelako jabe partikularrek.

Baina hirigintza beti alda daiteke. Areago uneotan, Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorra berritzeko fasean murgilduta gaudela. Azken batean, Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorraren berrikuspena parada oso egokia da birdentsifikazioa zuzentzeko. Gainera, serioski planteatzen ari dira arestian aipatutako desklasifikazio/birdentsifikazio binomioa aplikatzea beste zenbait sektoretan (San Prudentzioko 17. sektorean eta Elorriaga-Arkautiko 18. sektorean), betiere 11.000 etxe berri horiek biltzen dituen planetik kanpo. Ez da ulertzen irizpide-ezberdintasun hori, tokiaren araberakoa, arazo berdin-berdin baten aurrean. Epaitegien mamua ere ez delako aitzakia sendorik, jabe partikularrek ez baitute Urbanizatzeko Jarduera Programak (PAU) ezarritako epea bete.

Harrigarria da, azkenik, Eusko Jaurlaritzak apenas ezer esatea afera honi buruz. Bazirudien urtarrilean onetsitako 4/2016 Dekretuan, non egoitza-kuantifikazio berria ezarri baitzen, Gasteizek ezin izango zituela 26.000 etxebizitza berri baino gehiago eraiki datozen hamasei urteetan (zifra hori ematen du kalkulu berriak). Baina, PPko hirigintza-zinegotzi ohiak publikoki aitortu bezala, Gasteizko Udalak propio eskatu zion Eusko Jaurlaritzari salbuespen bat ezartzea Dekretuan, eta, ondorioz, 7.b.1 artikuluan birdentsifikazio operazioak gehienezko kopuru-mugatik salbuetsi ziren. Barnera hazten jarraitu ahal izateko. Beharrezkoa izan ez arren. •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Etorkizun hobea argitzea da arima zartatuen sendabidea

Badira sendatu egiten diren zauriak. Hautsitako hezurrak, adibidez, osatu egiten dira. Arima zartatuak, ordea, ez. Zauriok bestelakoak dira. Bizitza ez ohi da berdina izaten jasan dituztenentzat. Ezta beren familia eta lagunentzat ere. Ezagutu duten infernutik bueltatu, sufritu zuten tormentua pasa, eta, gerora ere, beren gorputza eta burua desitxuratzen segitzen dute.

Bai, batzuetan zenbakiek ez ikusiarena egitea eragozten duten errealitate bat adierazten dute. Gezurrik esaten ez duten zenbakiak dira, pertsonaren duintasuna eta osotasuna errespetatzen duen edonor asaldatzen dutenak. Lakuak agindutako eta Paco Etxeberria mediku forentseak zuzendutako ikerketaren behin-behineko ondorioak jakin dira berriki. Soilik Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 4.009 euskal herritar torturatu dituztela egiaztatu da, gehien-gehienak Guardia Zibil eta Polizia espainiarrak, baina, baita, 311, Ertzaintzak ere. Hiltzeraino torturatuak 11, ehunka ospitaleratuak. Eta, aldiz, zigortutako torturatzaile apurrak indultatu egin dituzte, are, biktimei irain eginez, gero kondekoratu dituztenak ere badira. Ikerketa horrek argi adierazi eta nolabait ofizial egin du ezkutuan mantendu nahi izan duten errealitatea, komunikabideek eta politikariek gutxietsi eta epaileek bermatu dutena.

> Milaka euskal herritarren gorputzen leku intimoetan eragindako botere erakustaldi siniestroa izan da tortura, masazko biolentzia mekanizatua, espainiarren botere erabileraren talismana eta tabua

Euskal Herrian tortura ez da soilik praktika krudel eta aberrantea izan. Jazarpen eta terrore sistema bat izan da, ezkerreko komunitate abertzalea umiliatu eta gizatasunez hustea izan duena helburu, bere indarren gaineko konfiantzaz hustu eta bere borondate kolektiboa akabatu nahian. Milaka euskal herritarren gorputzen leku intimoenetan eragindako mugagabeko botere erakustaldi siniestroa izan da, herri honen kontrako masazko biolentzia mekanizatua.

Gure testuinguru geografikoan ez da egongo, hamarkadetan zehar, bi erregimen ezberdin eta tartean trantsizio bat izan dituen Estatu batek hain modu sistematiko eta zigorgabean lurralde jakin batean kokaturiko populazio zehatz baten kontra tortura hain masiboki erabili duen beste kasurik. Muturreko sufrimendua eragin dieten milaka herritar horien gorputzek, eraso zital baten pean, salbuespen egoera anker batean instalatuta, elkarbizitza parametro arrunt edo arrazional orotik kanpo egon den gizarte bat gorpuztu dute. Legalizatua edo ez, tortura talismana izan da hemen, espainiarren botere praktika. Eta tabua ere izan da, denek zekiten egiaren zigorgabetasuna gordetzeko erabilia. Hemen, Donostian adibidez, San Martin kaleko Espainiako Justizia jauregitik bostehun metrora, La Cumbre jauregian, tortura gune klandestino bat martxan egon da urte luzez. Tortura erabiltzen zuten indar polizialak zuzentzen zituzten politikariak Gasteizko Gobernuan egon dira, EAJrekin ituna eginda, EAJ beste alde batera begiratzearen eta sudur-zuloak tapatzearen plantak eginez ibili bazen ere.

Bizi osorako zigorra justiziaren adierazpide goren egin dutenek, pasio baxuenak xaxatuz salbuespenezko egoera betikotu nahi duten horiek, minimoki irekia den mentalitate oro higuintzen duen populismo zigortzailea elikatzen dutenek, torturaren egia lurperatu nahi lukete. Errealitate bezala, gerra zikinak bezala, herri honetan azken bost hamarkadetan gertatu denaren inguruko errelato fidela baldintzatu eta aldatu egiten duelako. Haien bertsio faltsu, partzial eta konponbide justu baterako oztopatzailea agerian uzten duelako, beren ustezko nagusitasun morala, pulpitutik predikatua, bere pisuz erortzen delako. Horregatik ukatzen dituzte gertakariak eta gertakariokin duten konplizitatea.

Torturatuek, askotan bakarrik, borrokatu duten egia, nolabait, ofiziala da jada. Ez dute mendekurik nahi, egia jakitea, aitortzea eta beste inork haiek bizitakoa ez bizitzea nahi dute. Kategoria pertsonal handia erakutsi dute. Kategoria hori, gainditze ahalegin pertsonal hori, baina, maila komunitariora igo behar da. Segur aski orain artean erabili ez diren beste bide batzuk urratuz, beste hizkera bat landuz. Etorkizun hobeago baten mesedetan. •

herria

SATURRARANGO KARTZELAKO HORMA ERAITSIEK ZER KONTATU ASKO DUTE

amagoia.mujika@gaur8.info

Ondarroa eta Mutriku artean, Gipuzkoa eta Bizkaia tartean, luxuzko bainuetxe bezala eraikitakoa –aberatsen atseden leku bikaina paraje paregabean–, emakumeen kartzela tamalgarri eta beldurgarri bihurtu zuten frankistek 1937-1944 bitartean. Arkitektura modu maltzurrean erabilita, lekurik ederrena zokorik ilunena bihur baitaiteke. Eraikina eraitsi arren han gertaturikoa borratu ez dadin ikerketa egin du Garazi Lizaso Manterolak.

Garazi Lizaso Manterolak Saturrarango kartzela izandakoa ikertu du, arkitektura eta generoa ikuspuntu modura hartuta.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Saturrarango emakumeen kartzelaz ez da ezer geratzen. Hondartzako parkingean ez dago han izandako presondegi ilun haren arrastorik, eta, jendartearen memorian, apenas. Akaso zeozer inguruko bazterretan, arrasto lausoturen bat noizbait nonbait zerbait irakurri duenaren memorian, tragedia hartan oinarritutako filmen bat ikusi duenarenean... baina, orokorrean, gutxi, gutxiegi, gure herriaren historian hain latza eta hain iluna izan den kapituluarentzat. Horrekin kezkatuta, Garazi Lizaso Manterola usurbildarrak kartzela horretan jarri du fokua bere master amaierako lana osatzeko. Eraikitako Ondarearen eta Eraikinen Birgaitze, Zaharberritze eta Kudeaketa Unibertsitate Masterra deiturikoa Arkitektura Arkeologiarekin lotuta dago eta ezerezetik edo gelditzen den horretatik informazioa lortzea du helburu.

Eta horretan aritu da Lizaso, eraitsitako eraikin horren inguruko ahalik eta informazio gehien biltzen, betirako gal ez dadin. "Birrindutakoa berpizten. Ahaztutako arkitekturak eta emakumeak: Saturrarango emakumezkoen espetxearen adibidea" izenburupean, berez luxuzko bainuetxe izateko eraikitako eraikin multzoa kartzelarik ankerrena, maltzurrena eta bizi baldintza makurrenak zituena nola bihur daitekeen agertu du ikertzaileak, «arkitektura neutroa dela esaten den arren erabileraren arabera tresna anker bihur daitekeelako».

«Dokumentazio lana ez da erraza izan. Laguntza handia izan dut, eskerrak eman behar dizkiet Arantza Ugarte eta Xabier Basterretxea Mutrikuko historialariei eta baita Iñaki Egañari ere», zehaztu du. «Nik aldarrikatu nahi dut Saturrarango kartzela gure ondarearen parte dela, ondarea ez dela gauza inpartzial bat. Irizpide batzuen baitan erabaki egiten da zer den gerora gogoratu behar dena eta zer den ahaztu daitekeena. Saturrarango eraikinak eraitsi egin zituzten eta erabaki zuten ez zela gogoratzeko modukoa han gertatu zena. Uste dut Saturrarango kartzelan gertatu zena ezin dugula ahaztu. Nahiz eta eraikina ez egon, nahiz eta euskarri arkitektonikorik ez egon, ezin dugu ahaztu Saturraranen emandako errealitate latz eta gordina. Ez da kasualitatea historia idatzi duenak, garaileak, Saturrarango kartzela eraitsi eta historiatik borratu nahi izatea».

Eraikinen historia eta erabilera

XIX. mendearen lehen hamarkadetan hainbat baserri eta errota zeuden Saturrarango hondartza inguruan, Ondarroa eta Mutriku artean –berez Ondarroako herritik gertuago dago eta bertako herritarrek asko lagundu zieten presoei–. XIX. mendearen erdialdean, eta euskal kostaldeak izandako turismo gorakadaren arrastoan, Gran Hotel Balneario deituriko luxuzko hotel-bainuetxea eraiki zuten. Ondorioz, alboko eraikinak ostatu bihurtu ziren. 1921. urtetik aurrera beherakada hasi zen, turismoaren gainbehera, eta Gran Hotel Balneario eta alboko eraikinak Gasteizko gotzaindegiari dohaintzan eman zitzaizkion.

«Behin gerran sartuta, tropa desberdinek erabili zuten kuartel modura. Leku batzuetan jaso denez, euskal gudarosteak ere erabili zuen. Badirudi EAJko gudari batzuek han hartu zutela aterpe. Baina ingurua frankisten esku geratu zenean, frankistek hartu zuten ostatu bertan. Orduan Francok dekretu espres baten bitartez Saturrarango eraikinak kartzela bezala erabiltzeko agindua eman zuen. 1937ko abenduaren 29an agindu zuen dekretua eta 1938ko urtarrilaren 3an jarri zen martxan», agertu du Garazi Lizasok.

Saturrarango kartzelak 1944ko udaberrian itxi zituen ateak, nahiz eta data zehatza ez den jakina. Saturrarango espetxeko zigilua daraman azken dokumentu ofizialak 1944ko apirilaren 27ko data dauka eta Josefa Garcia Segretenaren baldintzapeko askatasunaren berri ematen du. Behin kartzela itxita, berriz seminario modura erabili zuen Elizak. Badirudi, baina, 1969-1983 bitartean hutsik egon zela, nahiz eta ez dagoen tarte horretako informazio askorik. 1983. urtean uholdeen ondorioz oso egoera kaskarrean geratu ziren eraikinak eta eraitsi egin zituzten. Ordurako Mutrikuko udaletxearen jabetza ziren.

1938 eta 1944 bitartean milaka emakume eta haur kartzelatu zituzten Saturraranen. Ez dago preso kopuruaren datu zehatzik, baina kalkulatzen da sei urtean 3.000-4.000 emakume pasatu zirela bertatik. Euskal Memoria Fundazioak iaz argitara eman zuen 1938 eta 1945 artean Saturraranen espetxeratuta egon ziren

Saturraranen preso egondako emakume talde bat. Espetxeratu kopuruan kartzela garrantzitsua izan zen Mutrikukoa, Estatu espainoleko bigarrena. Saturrarango preso ohien familiek utzitako irudiak. Eskerrak lerrootatik beren dohaintzagatik.

pertsonen zerrenda eta bertan 1.583 izen aurki daitezke. Historialari askoren ustean Saturrarango presoen errolda erre egin izan da urte askoan. 2010. urtean Iñaki Egaña historialariak Martuteneko artxiboan aurkitu zituen errolda horietako batzuk eta geroztik Oñatiko Artxibo Historikoan daude gordeta. Saturraran oso garrantzitsua izan zen preso kopuruan. 1940. urtean 1.500 presotik gora zituen, eta, hiru urte geroago, 1.050.

Frankismoaren ereduzko presondegia

Saturrarango kartzela oso erabilia izan zen frankismoaren aldetik, «eredutzat» hartzen zuelako. "Redención" astekarian ohikoak ziren Saturrarango sistemaren inguruko goraipamenak. 1939ko maiatzaren 25eko alean jasotzen denez, «haran txiki bat, eguzkia eta argi gardena; inolako itxiturarik gabe, luzatutako triangelu irregular formakoa [...] Begiratu nahi den lekura begiratuta ere, naturak ezarritako gatz onenen emaitza aurkituko da. Eraikuntzak itsasoko kresalera bideratutako ur gozoa daraman errekatxoaren alde batera eta bestera daude, noranzko desberdinetan. Modako hondartza, ikastetxe, gorrotoak eta gerrak gidatutako armada gorriaren kuartel nagusi izan zen. Egun alaitasuna, gaztetasuna eta poza itzuli dira; lehengo modako hondartza dakar gogora, espetxearen garraztasuna ezabatuz». Propaganda frankistaren azpian, baina, beltzetan beltzena zen errealitatea sufritu zuten bertan preso zeudenek.

Saturrarana iritsitako lehen emakume presoek egoera tamalgarrian zeuden eraikinak topatu zituzten: sabaiak hondoratuta, hormak zikin eta pitzatuta, beirak hautsita hoditeriak buxatuta...

Lizasoren esanean, «Saturrarangoa kartzela inprobisatua zen, ez zen espetxe izateko eraikia izan. Baina bere arkitekturaren nolakotasunak eta horri emandako erabilerak kartzelarik ankerrena diseinatzeko balio izan zuten».

Mendi arteko eraikin multzo batek osatzen zuen Saturrarango kartzela, mendiz inguratutako haran bat zen, nahiz eta itxitura artifizialik ez izan. Triangelu baten forma zuen; alde batean itsasoa, eta, beste erpinean, zaindariak. Ez zen alde egiteko moduko tokia. Gainera, presoak modulutan banatuta zeuden eta ezin zuten modulu batetik bestera aske mugitu. Presoen arteko harremana eragozten zen horrela.

Berez luxuzko bainuetxe izateko eraikitako eraikin multzoa kartzelarik ankerrena eta bizi baldintza makurrenak zituena nola bihur daitekeen agertu du ikertzaileak, «arkitektura tresna ankerra bihur daitekeelako»

«Nik aldarrikatu nahi dut Saturrarango kartzela gure ondarearen parte dela, ondarea ez dela gauza inpartzial bat. Irizpide batzuen baitan erabaki egiten da zer den gerora gogoratu behar dena eta zer den ahaztu daitekeena»

Eraikuntza txikiena guardia zibilen eta soldaduen kuartela zen, gain batean zegoena eta kartzela zorrotz kontrolatzeko modua ematen zuena. Buena Vista izeneko eraikina zen hori. Gran Hotel Balneario zenaren eraikinean zeuden mojak eta emakume preso gehienak. Baita kapera eta erietxea ere. Astigarraga ostatua hartzen zuen eraikinean amen eta umeen modulua zegoen, eta, San Pelaion, adineko emakumeena. Eta Barrenengua izeneko eraikinean zeuden Saturrarango kartzelako zigor ziegak, tamalez bere krudelkeriagatik ezagun egin direnak. Ziegok errekaren altueran zeuden eta ondorioz beti zegoen ura zoruan altuera jakin bat arte. Baina marea igotzen zenean, ia metro bateko altuera hartzen zuen urak. Zigortzen zituzten presoak bertara eramaten zituzten eta isolatuta edukitzen zituzten egun luzeetan. Kontatzen da zenbait emakume beren haurrekin zigortu zituztela eta haurrek ez zutela bizirik iraun bertako baldintza gogorretan. Hartara, hildako beren haurrekin isolatuta egunak eman zituzten preso batzuek.

Gran Hotel Balneario luxuzko bainuetxea hartzen zuen eraikina da definituen dagoena, bere planoak jasota baitaude, ez

Goiko bi argazkietan Saturraranen preso egondako bi emakume talde. Milaka emakume pasatu ziren Saturraranetik eta bizi baldintza oso kaskarretan eta latzetan igaro zuten beren kartzelaldia.
Saturrarango preso ohien familiek utzitako irudiak. Eskerrak Ierrootatik beren dohaintzagatik.

«Presoak gelatan biltzen zituzten. Lurrean egiten zuten lo, militarrenak izandako lastozko koltxoi-zaku zikin batzuen gainean. Preso bakoitzak lotarako 45 zentimetroko tartea zuela kalkulatzen da. Beraz, alboz lo egin beharra zuten»

«Saturraranera iritsi ginenean gela batean sartu gintuzten eta han komunik ez zegoenez, zinkezko bost edo sei kubo jarri zizkiguten gure beharrak egiteko. Gela hartan ez zegoen ez gortinarik ez hormarik ez ezer»

beste eraikinenak bezala (bertan preso egondako emakumeen testigantzetatik osatu dira existitzen ez diren planoak). Berez kartzela izateko diseinatuak izan ez arren, erabilera anker horretarako moldatu ziren izatez luxurako eta atsedenerako diseinatutako logelak. Logelak ziegak ziren eta eraikinaren korridore nagusia baliabide bikaina bihurtu zen presoen kontrolerako.

Saturrarango baldintza latzak

Kartzela berez da gogorra. Eta Saturraranen presoaldia are latzagoa egiten zuten baldintza dezente zeuden.

Saturrarango espetxean sartu zituzten garaiko balioen moldetatik atera ziren emakumeak. Eta espetxean egonda, zigor hirukoitza izan zuten; zigor penala, zigor soziala –berez zegozkien rolak ez zituztelako bere egiten– eta zaintzari loturikoak. Izan ere, Saturraranen emakume asko seme-alabekin zeuden, asko jaioberriak eta adin oso txikikoak. Zaintza beren gain zegoen, nahiz eta espetxean egon. Jateko gutxi zegoen, haur asko hil ziren gosez eta gaixorik, eta horrek latzagoa egiten zuen amaren zigorra. Kontatzen da presoek kanpotik jasotzen zuten jatekoa –senideek emandakoa, Ondarroako arrantzaleek bidalitako arraina...– mojek konfiskatu eta kartzelako ekonomatoan jartzen zutela salgai.

Izan ere, Saturrarango beste ezaugarri bat hori zen: mojak ziren zaindariak, militarrekin batera. Eta mojak onberatasunarekin lotzeko saiakera egiten den arren, Saturrarangoek gutxi zuten horretatik. Oso zitalak ziren. Gaizki tratatzen zituzten presoak eta horregatik pasatu dira Saturrarango historiaren orrialdeetara, beren ankerkeriagatik.

Bigarren Errepublikan, Victoria Kent abokatu eta legegileak aldaketa sakonak ekarri zituen espetxe erreforma bultzatu zuen, irmo sinesten zuelako kartzelak birgizarteratzeko bidea zabaldu behar zuela. Aldaketa horietako bat izan zen mojak espetxeetatik ateratzea. Baina frankismoarekin mojak espetxeetara bueltatu ziren.

Batetik, preso kopurua handia zen eta horri irtenbide bat eman behar zitzaion. Hartara, berez espetxe bezala eraikiak izan ez ziren hainbat eraikin Elizak frankismoaren esku utzi zituen, kartzela bezala erabil zitzan. Bestetik, mojak erregimenarentzat doako eskulana ziren, ez zuten gasturik ekartzen, eta presoekin doktrinamendu lan itzela egiten zuten. “Okerrak” ziren emakumeak zuzentzeko helburua zuten mojek, inposatutako rolak zintzo betetzen zituzten emakumeak

eraikitzekoa. Eta horretara bideratzen zituzten tailerrak eta bestelakoak. Elizak kartzeletan katekizatzeko masa sozial handia zuen.

Espetxeetako funtzionarioek ere egiten zuten ekarpen propioa kartzelako egunerokoa lazteko orduan. Horietako batzuk Erregimen Berriarekiko leialtasun faltagatik susmagarritzat jo zituzten eta espedienteak ireki zizkieten. Hala ere, garai hartako kartzeletako masifikazioa zela-eta sortutako beharragatik askok euren postua mantendu ahal izan zuten. Dena den, legez, sortutako funtzionario postu berriak "basakeria gorriaren" biktimen senitartekoentzat ziren, hau da, bando nazionaleko hildako edota zaurituen familiarrentzat. Hala, mendeku egarriaren ondorioz, ankerkeriaz ziharduten presoekin zuten eguneroko tratuan.

Zoruan jan eta lo egin

Saturrarango eraikinak berez luxuzko hotel eta bainuetxe izateko sortu baziren ere, urte batzuk geroago bertan preso egondako emakume eta haurrek ez zuten inolako erosotasunik ezagutu. Jantoki erabilera ematen zioten nabe antzeko bati eta, bertan, lekukoen arabera, ez zegoen ezer. «Zoruan jaten genuen», kontatzen dute. Gainera, eta kartzelako masifikazioa zela-eta, bi txandatan joan behar izaten zuten, ez zirelako kabitzen. Umeei lehenago ematen omen zieten jaten, jateko zegoen apur hori.

Masifikazioa lo egiteko garaian ere sufritzen zuten. «Presoak gelatan biltzen zituzten. Lurrean egiten zuten lo, militarrenak izandako lastozko koltxoi-zaku zikin batzuen gainean. Preso bakoitzak lotarako 45 zentimetroko tartea zuela kalkulatzen da. Beraz, alboz lo egin behar izaten zuten, ahoz gora ez zirelako kabitzen», zehaztu du Garazi Lizasok.

Higienea bera ukatu egiten zitzaien. Bertan preso egondako Balbina Lasheras Amezagaren hitzetan, «ehun eta hirurogeik egiten genuen lo elkarrekin, bi komun bakarrik genituen eta joan gineneanean konketarik ez geneukan». Carmen Riera preso ohiaren esanean, berriz, «Saturraranera iritsi ginenean gela batean sartu gintuzten eta han komunik ez zegoenez, zinkezko bost edo sei kubo jarri zizkiguten gure beharrak egiteko. Gela hartan ez zegoen ez gortinarik ez hormarik ez ezer; guztiok gure beharrak egin behar izan genituen eta gau guztian egon ziren kubo haiek han, kakaz beteta, ume guztiak han zeudela».

Higienea bera ukatu zitzaien emakume haiei, ez zuten ur berorik ezagutu eta pabilioi bakar batean ere ez zegoen dutxarik. Ahal bezala garbitzen ziren. «Eraikinen egoerak eta espetxearen egiturak etak eragin zuzena zuten emakume presoen egoera animiko eta emozionalean», nabarmendu du Lizasok.

Goiko irudian, Saturrarango apaiztegia 1923. urtean. Ezkerretik, aurrean: Barrenengoa, Zaindetxea eta frontoia. Bigarren planoan, Astigarraga ostatua eta San Pelaio ostatua. Hirugarrenean, Gran Hotel Balneario eta Buenavista hotela. Ezkerrean, goian, Katetxea. Lerroon alboan, eskuinetara, Saturrarango seminarioaren postal bat, 1950 ingurukoa, kartzela itxi ondoren seminario bihurtu baitzen. Saturrarango preso ohien familiek utzitako irudiak. Eskerrak lerrootatik beren dohaintzagatik.

Bistan da bizi baldintzak oso kaskarrak zirela Saturraranen eta, ondorioz, presoen osasuna makala zen. Espetxean bertan erietxe txiki bat zegoen, baina askotan eramaten zituzten gaixo larriak herrialdeko erietxera.

Saturrarango espetxean 116 emakume eta 56 haur hil ziren. Bizi baldintzak txarrak ziren eta espetxeko medikua, Luis Arriola, ez zen oso profesional txukuna. Tifusaren kontrako txertoa hiru txandatan eman ordez bakarrean eman zien, eta horrek gaixo asko eragin zituen. 1940. urteko udan 36 haur eta lau emakume hil ziren tifusaren ondorioz, kutsatutako ura edan ondoren. Haur asko hil egin ziren, beraz, eta kontatzen da beste asko mojek kendu egin zizkietela amei, familietara saltzeko. Baina datu hori ez da ziurra, nahiz eta zantzuak badauden.

Preso kopuruan Saturrarango kartzela Estatu espainoleko bigarrena izan zen. Zenbait informazioaren arabera, 1941-1942 inguruan estatuan preso zeuden emakumeen erdia Saturraranen zegoen. Preso kopuruan eta horiek sufritutako ankerkerietan latzegia izan zen Saturraran, eraikinak eraitsiagatik borratu ezin den orbaina.

Amaia
BALLESTEROS

IRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK

Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

DENOK BUSTIKO BAGINA

Denok bustiko bagina, igual. Lasai ibiliko ginateke kalean gora eta behera, ezagun batekin hizketan geratu eta kuadrilla betirako galdu dugula konturatu arren. Eta lasai erretiratuko ginateke etxe aldera gorputzak eta gogoak hala agintzen digun orduan, berdin argi edo ilun, berdin zuzen edo balantzaka, berdin aukeratutako konpainian, aukeratutako bakardadean edota gertatutako bakardadean. Berdin lasai modu guztietara. Baina norbaitek emakume bat atari batean preso hartu eta taldean sexu erasoa egitea bere festaren parte dela ulertzen duen bitartean, ez dugu lortuko. Noren festa da hori? Denok bustiko bagina, igual. Baina uraren azpian orduak, egunak, hamarkadak eta mendeak eman beharko genituzke jendarte bezala gainean daukagun kraka matxista garbitzeko. amagoia.mujika@gaur8.info

Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Lurrin lagin bat

Uda parteko marranta hauetako batek bete-betean harrapatu nauenean otu zait usaimenaren gaia lerrootara ekartzea. Duela aste pare bat -arnas betearen jabe nintzela oraindik ere-, Smell Dating zerbitzua zuten hizpide irratiko tertulia batean; bikoteak osatzeko partaideen usaia elkartrukatzen duen ligatzeko zerbitzu bat, alegia. New Yorken berriki egin den esperientzia bat da, ehun bat kideri kamiseta bat ematen zitzaien bizpahiru egunez jantzita eraman zezaten eta gero denak bildu, zatitxotan egin eta kideen artean partekatzeko. Emaitza onik eman duenik ez da oraindik argitara eman, baina tira, gaiak bere horretan eman zuen tertulia anekdotaz bizibizi jartzeko. Niri ere otu zitzaidan anekdotarik lehenengo pertsonan, eta beharbada horregatik konturatu nintzen maiz izan dudala usaimena eta ligatzea hizpide baina sekula ez dudala irakurri zientziak horretaz guztiaz zer dioen.

Nonbaitetik hastearren, "feromona" deitzen zaie izaki bizidun hainbatek espezie berdineko kideekin komunikatzeko (horietan aldaketak eragiteko) partekatzen dituzten substantzia kimikoei. Espezie askok erabiltzen dituzte lurrin edo mezu anitzok, erakarpen sexualerako edota bestelako askotariko helburuekin: alarma hedatzeko, lurraldea markatzeko... Inurriek, adibidez, ibilbide zehatzak horri esker jarraitzen dituzte. Gizakien artean, baina, ez dago nahikoa frogatuta mota honetako komunikaziorik ote dugun. Ikerketa batzuk egin izan dira, baina emaitzak eta metodoak ez dira antza nahikoa sendoak. Deigarria da, dena den, feromonak detektatzen dituen organo "bomeronasala" gizakiok izan badugula eta bizitza osoan zehar mantentzen dela funtzional atrofiatu gabe. Kontua, noski, funtzionaltasunik betetzen ote duen argitzea da.

Argitzeko bide bat, Teoria Ebolutiborra joatea da, hobekuntza ebolutiborako sexuaren mekanismo izaerara. Ingurunera prestatuago egongo diren kideak sortzearren, ezaugarri ezberdinetako kideak parekatzea litzateke sexuaren estrategia, arin eta txarto esanda. Zientzialariek sistema immunologikoan jartzen dute arreta hori behatzeko, eta, zehazki, bere inpronta genetikoan; HLA (Gizakien Antigeno Leukozitarioen ingelesezko siglak) markatzaile sistema aztertu izan da, baina emaitzak esan bezala ez dira esanguratsuak. Are, duela urte pare bat egindako ikerketan bikoteek HLA antzekoak zituztela frogatu zen, presio ebolutiboak agindu beharko lukeen kontrara. Beste ikerketa batzuetan jakin izan da emakumeek hilerokoa sinkronizatzeko joera dutela batera bizi direnean, eta feromonak jotzen dituzte komunikazio "ezkutu" horren eragile. Bestelako ugaztun batzuetan ere behatu izan da feromonekin loturiko esperientziarik, baina, dena dela, argi gutxi topatu ahal izan dut bikoteak elkartzeko mezu propagandistikoz jositako sareen sarean. Usainik ezin hartu ba gizakion feromonei!

Niri dagokidanez, beti izan naiz zeozer ahoratu aurretik lehenik usaintzekoa. Usaimenaren bidez ingurunea aztertu eta ulertzeko joera izan dut, eta ez dakit zer puntura arte konpartitua ote den joera hori. Maiz ingurukoekin hitz egiten pentsatzen dut garrantzi larregi ematen diodala usaimenari. Aho bete hortz gelditu nintzen behin anosmia edo usaimenik eza pairatzen zuen lagun bat ezagututa... Ulergaitza zitzaidan mundua usainik gabe. Are, oroitzapen sakon asko usaiekin erabat lotuta ditut, eta beti kontatzen dut txikitan jaten nuen izozkia ahoratzen dudan bakoitzean begiak itxi eta zein modu indartsuan naraman garunak haurtzarora. Memoria kutxa itxiak zabaltzeko giltzak bailiran izan ditut lurrinak... Eta bai, harreman afektibo eta sexualetara etorrita ere bai, eragin ulergaitz eta sakona izan du beti niretzat pertsonen usaiak, txarrerako batzuetan, baina onerako batez ere. Ez dakit ba, marranta hau pasatzen bazait, New Yorketik kamiseta lagin bat eskatu beharko dut! •

«Izozkia usaintzean begiak itxi eta garunak haurtzarora narama». Jon URBE | ARGAZKI PRESS

{ koadernoa } **Iker Barandiaran**

Bisitarien eta aisialdiaren marka

BBK Live jaialdiaren kartelari begira nago eta ez dut apenas talderik ezagutzen. Esku bateko atzamarrekin zenbatu ditzaket aurretik entzun izan ditudan taldeak, eta horietatik bat –C Tangana– ez dut urrunera ere ikusi nahi. Bai, ziur proposamen dotoreak galtzen ari naizela, baina denboraren, orduen eta bizitzaren bizi izatea honelakoa da: etengabe gabiltza aukeratzen, gauza bat edo beste egiten, hautatutakoaz gozatzen edo sufritzen eta alboratutakoa hartuz gero zer egin ahal izango genezakeen inoiz jakin gabe.

BBK Live, autobusez garraiatutako 100.000 pertsona mendixka batean ordu luzez edo egunez dezibelio eta jendarte artean preso edo gustukoen duzun giroan aske topera! Segun eta botila nola ikusi nahi duzun! Tira, botilak ez, ezin dira bertan erabili, eta are gutxiago tapoiekin. Euria egingo duen ere ez gaude ziur, baina aterkinik ez, mesedez. Izan ere, guardasolak zein botilak arma aski arriskutsuak izan daitezke gu baino gazteagoak diren artistentzat. Artistak? Artistak ote! Gizajoek nora etorri diren jakingo ote dute? Azalduko al diete antolatzaileek? Eta akaso axola al zaie Ingalaterra eta Frantziatik festibalera etorritako milaka musikazale eta parrandazaleei? Hotelak, jatetxeak eta tabernak beteko dituzte, hori da "Marca Euskadi" delakoaren helburu nagusia.

> BBK Live, autobusez garraiatutako 100.000 pertsona mendixka baten ordu luzez edo egunez dezibelio eta jendarte artean preso edo gustukoen duzun giroan aske topera! Botila nola ikusi nahi duzun...

Marka honekin jarraituta, saskibaloiarekin erdiesten ez duena lortzen ahalegindu zen Ortuzar: Bilbao Arena delakora Scorpions talde dinosauro heavya ekarri eta lehen kantuan taldearen atzeko pantaila erraldoian Aberri Egunean ere inoiz ikusi ez den pareko ikurrina –euskal ikurrina– itzela. Pena, Andoni, hirugarren kantuaren ostean atseden hartu eta ikusleak agurtzerakoan Alemaniako taldearen abeslariak "Spain" behin eta berriro esan izana. Horien aurretik agertoki gainean modu askoz xumeagoan aritutako Suediako Sabaton taldeko abeslariaren "eskerrik asko"-ek txaloz bete zuten halako saskiratzerik aspaldi ikusi ez duen estadioa. Berriki Eskandinavian Euskal Herriari buruz argitaratutako gidak izango du zeresana.

Izan ere, mundua hainbeste globalizatu duten honetan askotan guk geuk ere zaila dugu non gauden jakitea, gure burua kokatzea. Horren adibide dira salbuespen gutxi batzuk izan ezik musika jaialdi erraldoiek eskaintzen dutena eta askok eta askok horietara jotzean aurkitu nahi dutena. Horietatik salbu daude Euskal Herria Zuzenean, inongo zalantzarik gabe, eta, beste arrazoi batengatik, Azkena Rock: gehienak Jurasic Park-eko taldeak eta ondorioz –hain kutsatuta ez gauden– ikusle tradizionalagoak izan ohi garelako. Baina gaur egungo jaialdi-erraldoi-zale askok musikaz harago dauden entretenimenduko beste elementu batzuk bilatzen dituzte, eta, gero eta parke tematiko kutsu handiagoa izan, hobeto! Halakoetan ikusi izan ditut telebista bidez iragarkietan bonbardatzen gaituzten marken standak –hori bai dela etxeraino sartzea, zure aisaldiraino!–, supermerkatuak, azalerako krema erakustaldiak, banku-kutxazainak, produktuen erakustaldiak, noriak eta tirolinak... Eta zinez diotsuet jende asko horien hutsuneagatik kezkatu eta kexatuko litzatekeela...

Jaialdi horiez gain, egunotan Euskal Herriko hiri eta herri asko kanpotarrez beteko zaizkigu. Hemingwayk eta Jarauta kaleko parranda itzelak sanferminetara erakarritako australiar, amerikar eta "anglo" aurrekaria duten hainbat eta hainbat egarri itsuz edozein iturriri heldu eta jauzi egiteko prest, alde batetik. Eta Donostiako Jazzaldiak eta parekaezineko ingurune horrek erakarrita frantziar jatorria dutenetako asko eta asko liluraren liluraz urez bustitako "Austrien Madrilen" baleude bezala.

Eta non gelditu dira orain hogei urtetik gora Donostiako "Salve"-ra espresuki poliziaren kontra harriak botatzera etortzen ziren italiar andana haiek? Eta Bilboko Aste Nagusian hiriko lorategiak hankaz gora jartzen zituzten Espainiako probintzietako *pies negros* eta asteburuko punk haiek? Eta Manteca herrena? Haiek bai marka, soinu banda eta parke tematikoak, ondo definitutakoak. •

herritarrak

Roberto Landa «Mundina». Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

infraganti

ROBERTO LANDA «MUNDINA»

Roberto Landa Armentia du grazia, baina Gasteizen, Euskal Herri osoan, «Mundina» ezizenez ezagunagoa da. Aspaldiko partez, haren marrazkien erakusketa bat ikusgai dago, «Gaztegin» gazte gehigarriaren azalen originalez osatua. Barre egin beharra dagoela dio, aldarrikatu eta salatzeko ere bai. «Gauzak egiten» segitzen du, han-hemenka.

Meza-mutil ohia. Blusa ohia. Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kide ohia. Fronte Islamiar zuri-urdineko zale amorratu ohia. "Una hora tarde" programako esatari ohia. MaZeta taldeko muralista ohia. "Deia"-ko marrazkilari ohia. "Gaztegin" astekariko marrazkilari ohia. "Ardi Beltza"-ko marrazkilari ohia. "Kale Gorria"-ko marrazkilari ohia. Gogoratzen ez zaizkion beste argitalpen batzuetako marrazkilari ohia. «Ohia. Ohia. Ohia. Lohia. Lagunkohia. Matohia. Morrohia. Leohia. Marrohia. Buruberohia...». Horrela aurkezten zuen bere burua marrazkilari gasteiztarrak duela zenbait urte.

Dioenez, Roberto Landa Armentia izen-deiturak zituen mundura jaio zenean, eta horiekin sinatzen zuen. Baina "Egin" egunkariaren ostiraleko gazte gehigarriaren azalak egiten hasi zenean, 92an, *Iskariote Mundina* ezizena erabiltzen hasi zen, Kortaturen "La familia Iskariote" abestia oso gogokoa baitzuen, batetik, eta aita Mundina, landareen gaineko irratsaioa egiten zuen apaiz katalan baten eraginez, bestetik, «bi trago edanda alamena ematen hasten nintzenean, haren antzera hitz egiten nuela esaten zidaten eta. Hala uste dut, behintzat».

Uda honetan, ostegunetik larunbatera bitartean, ikusgai egongo da Mundinaren "50 gramos de amonal y ardor juvenil" (50 gramo amonal eta gazte garra) erakusketa Gasteizko Orbain kultur elkartean, Juan Mari Atutxa Lakuako Herrizaingo sailburu ohiaren esaldi sonatua gogora ekarrita. «Badakit 'Gaztegin'-en marraztu nuela, ez naiz gogoratzen noiz, ordea. 90eko hamarraldian izan zen, nonbait, grunge mugimenduaren garaian. 'Egin' egunkariaren gazteentzako gehigarria zen 'Gaztegin'. Ostiraletan agertzen zen. Musika, politika, gazte jarduerak, ekintza-errepresioa-ekintza, salaketa, artea, manifak eta ostiak, eta umorea, umore asko, gauzak *in the streets* nola zeuden kontuan izanda», idatzi zuen erakusketaren aurkezpenerako.

Arte erakusketak muntatzen lan egiten du orain. Eta marrazten jarraitzen du. «Egiten ditut gauzak, baina nire kabuz. Egun onak ditut eta lana berez ateratzen da, baina beste batzuetan ezer ere ez. Boladak izaten dira», dio. Hala Bedi irratiko "Desde el abismo" musika programan ere parte hartzen du, «baina musika jartzen baino *Brexit*-aren edo Rajoyren gainean hitz egiten ematen dugu denbora gehiago». Ez da egin duen irratiko lehen programa, ordea. 90eko hamarkadan "Una hora tarde" egiten zuen, «tertulia espainiar» baten parodia, eta «Monty Python taldearen eraginez-edo», "umore ingelesera" jotzen zuten. «Egun ez luke funtzionatuko, telebistako tertulia fatxak ikusita». Ondo gogoan du "Egin" itxi zutenean programa berezia egin zutela: "Nosotros los demócratas". Ondo gogoan du, halaber, bera kalean geratu baitzen. «ETAkoak ginen, nonbait, jakin ere gabe», eta Jabier Salutregi "Egin"-eko azken zuzendaria joan den urrian kartzelatik atera zela gogoratu du. Irratian ez ezik, tarteka zenbait tabernatan –edo, jaietan, Gasteizko txosnetan– ere jartzen du musika.

Gaztetan hasi zen marrazkigintzan, bere aitak etxean zituen lamina batzuk kopiatuz. Ondoren irakasle batekin hasiko zen marrazki-teknikak ikasten, eta 80ko hamarkadaren bukaeran, irakasle haren bidez, "Deia"-n lan egiten hasiko zen. Han epaiketen gaineko informazioak ilustratzen zituen. Baina etapa profesional hura «infografia erredakzioetara iritsi zenean» bukatu zitzaion. BBB Batxilergo Bateratu Balioaniztuna bukatutakoan, Arte Aplikatuak ikasten hasi zen, diseinu pixka bat, dekorazioa, zeramika... «Bi urte eman nituen pentsatzen egiaz dekorazioak bost axola zidala, eta, zeramikak, errespetu handiz esanda... baita ere». Goizeko lehen orduetan arte barrokoaren gaineko diapositibak ikustea baino interesgarriagoa iruditzen zitzaion "Egin" irakurtzen kalean geratzea.

Goiz haietako batean, Mundinak ikaskide zuen Bilboko lagun batek proiektu baten berri jakinarazi zion, "Egin"-en gazteentzako eranskin bat prestatzen ari zirela, hain zuzen. Handik gutxira "Gaztegin" jaio zen, haren azala Mundinak sinatuta. Simon iratxoa sortu zuen eranskinaren maskota gisa (aurrerago Simona ere sortuko zuen), eta, azalaz gainera, komiki zerrenda bat ere egiten zuen.

Luze gabe, beste pertsonaia batek kenduko zion protagonismoa Simon iratxoari: Juan Mari Atutxa Lakuako Barne sailburuak, eta zenbait urte geroago,

Mundina, Orbain elkartearen ondoko parketxoan. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

hark Baltasar Garzon epaile espainiarrarekin partekatuko zuen protagonismo hori. «Beharbada, Atutxa gehiegitan agertzen zen azalean edo artikuluetan», aitortu du Mundinak, «baina ez zegoen ahoa zabalduko ez zuen asterik, eta gauza jakina da zer-nolako perlak botatzen zituen».

Solasaldian hamaika pasadizo kontatu ditu, "Egin"-eko lankide batzuekin Etxarri Aranatzen Guardia Zibilak kontrol batean geldiarazi zituenekoa kasu, guardia batek gazte bati zaplaztako bat jotzen zion unean. Autotik jaitsi eta Mundinaren marrazkiak ikusita –tartean "Gaztegin"-eko Simon pertsonaia Guardia Zibilaren kontrol batean agertzen zena–, sarjentuak esan omen zion: «Zuok euskaldunok horrela jartzen duzue txapela [buruan azkoin bat hariztatzeko keinua eginez], eta guk honela [alde batera okertuta]. Ea hurrengoan ondo marrazten gaituzun».

Hedabideetan egindako lanaz gain, hamaika kolektibo eta ekimenen kartel, pankarta eta muralak egiten zituen. Esate baterako, blusa kuadrillaren batentzat, jaialdiren baterako... baina batez ere Amnistiaren Aldeko Batzordeentzat, Gasteizko Gaztetxearentzat eta bestelako herri agerpenentzat, hala nola intsumisoaren aldeko mugimenduarentzat. Nola ez, ba, bera ere intsumisoa izaki.

Mundinaren irudien ezaugarri nagusiena umorea da, itxuraz behinik behin. Baina umorea salaketa eta aldarrikapenerako tresna gisa erabilita, dioenez. «Nik ez nuen entzuten nuena bakarrik marrazten, ikusten nuena batik bat baizik, eta edozein egunetan ikusten nituen poliziak edo ertzainak gazteren bat jipoitzen, esate baterako». Halako astakeriak salatu beharra zegoen, baina «barre ere egin beharra zegoen, bestela...».

Mundinaren irudien ezaugarri nagusia umorea da, itxuraz behintzat, baina umorea salaketa eta aldarrikapenerako tresna gisa erabilita. «Barre ere egin beharra dago, bestela...»

«Gaztegin» gehigarria kaleratzen zuten garaiko polizia indarkeria gogoratuta, uste du egoerak ez duela hobera egin, eta gaur egungo «Mozal Legea» eta Iñigo Cabacasen kasua aipatu ditu

Garai hartako polizia indarkeria gogoratuta, uste du egoerak ez duela hobera egin, eta gaur egungo "Mozal Legea" eta Iñigo Cabacasen kasua aipatu ditu: «errepresio bera, polizien korporatibismo bera...».

"Gaztegin"-eko etaparen ostean, MaZeta talde muralista sortu zuen lagun batzuekin. Askotariko lanak egiten zituzten, tabernetan edo diskoteketan, batzuk artistikoagoak, beste batzuk funtzionalagoak.

Bestetik, komiki lehiaketaren bat irabazi zuen, arlo horretan gauza gutxi egin omen duen arren. Edonola ere, 2008an "Animalien ihauteria" argitaratu zuen Saure argitaletxearen eskutik. Liburuko marrazkiak ez ezik, testua ere berak eginikoa da.

Eta ez da harrigarria, Mundina ibili izan den giroa kontuan izanda, zenbait musika talderen disko azalen bat ere egin izana, hala nola Soziedad Alkoholikaren "Ratas" albumarena edo Salvate Si Puedes eta Trikitixa Kontrairo taldeen beste zenbaitenak.

"Ardi Beltza" eta "Kale Gorria" gogoratuz bukatzen da Mundinaren erakusketaren aurkezpena: «Horiek ere itxi zituzten. Eta horietan ere marrazten nuen. Etorkizun oparoko karrera zapuztu zidaten. Kar, kar, kar....».

Mundina aspaldikoa. •

Xabier Izaga Gonzalez

ORBAIN KULTUR ELKARTEA

«ZUK ZEUK EGIN» FILOSOFIA, PUNKAREN ETA ROCKAREN KONTRAKULTURA IKERTU, HEDATU ETA AINTZATESTEKO

Iker Zubia Orbain elkarteko presidentea Mundinarekin, aurrean «Gaztegin» astekariaren ale baten azala dutela.
Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRRESS

Orbain elkarteak ez du oraindik ere urtebete, baina bertako kideek ez dute denbora alferrik galdu. Iazko irailean antolatu zuten lehenengo jarduera, aurkezpenik behar ez duen Lucio Urtubia anarkista nafarraren hitzaldia. Espero izatekoa zen jende asko joango zela eta espero baino askoz gehiago bildu zen, prestatu zuten aretoa lepo bete eta lagun askok kalean geratu behar izan baitzuten. Orain elkartearen lokalean Fernando Landa *Mundina* marrazkilariaren erakusketa dago, baina lehenago AR LA Gasteizko artista kolektiboaren erakusketa, bi dozena kontzertu, hitzaldiak, antzerki saioak eta bestelako adierazpen kultural eta artistikoak antolatu dituzte.

Elkarte kulturala da Orbain. Haren asmoa Gasteizen kulturari bultzada berria ematea da, behetik eta autogestiotik. Elkarte kulturala, zalantzarik gabe, baina nolabait esateko, berariazkoa. Haren helburu eta eginkizuna punkaren, rockaren eta Euskal Herrian haien inguruan sortu den kontrakulturaren aintzatespena, azterketa eta sustapena dira. Eskorbuto, RIP edo La Polla Records taldeek utzitako ondare kultural, politiko eta soziala aztertu nahi dute, «Cicatriz, Cock Sparrer, Sex Pistols, Potato edo Ramonesek utzi zigutenarekin berotzen jarraitzen dugulako». Orain dela 30 urtetsu herri honetan musika taldeen inguruan sortu zen fenomenoak Euskal Herrian berezko ezaugarriak izan zituela uste dute, garapen desberdina izan zuela, alegia, Euskal Herrian beste leku batzuetan izan ez den osagarri ideologiko nabarmena hartu baitzuen.

Izan ere, musika giro hartan irrati libreak, gaztetxeak, fanzineak... sortu ziren, mugimendu kultural askotariko eta zabal bat; bistan denez, modu iraunkorrean sortu ere, gaur egun bizi-bizirik dirau eta. Diotenez, nabarmena izan zen, halaber, herri honetako gatazka politikoaren eragina, hala nola harekin lotutako edo haren aldamenean garatutako hamaika borrokena. Eta gaur egun dagoen guztia, geratu dena edo haren ondorioz sortu dena ulertzeko, oso garrantzitsua iruditzen zaie lehen zer zegoen jakitea.

Hutsune bat bete dute

80 bazkide dira Orbainen, sumatzen zuten hutsune bat betetzen laguntzea erabaki zutenak. «Azken urteotako kultur politikak negargarriak izan dira, eta hala salatu izan dute hemengo artistek eurek. Instituzioek ekimen kulturalak lagundu behar dituzte, jakina, denak, modu orekatuan eta kultur politika zentzuzkoagoak eginez. Baina gauza asko dago egiteko eta ezin gara diru laguntzen zain eseri», dio Orbaineko presidente Iker Zubiak. Elkartearen lokalean topatu du GAUR8k eta beren ibilbideaz eta proiektuez solasalditxoa egiteko prest agertu da.

Ikerrek dioenez, erreminta bat jarri nahi dute zerbait esateko duen jendearentzat, musika, antzerki, argazki edo marrazki bidez zerbait esan nahi eta baliabiderik ez dutenentzat, lokala eta elkartearen babesa eskainita. Elkartea, «jakina», irabazi asmorik gabea da, loturarik gabea, hau da, menpekotasunik gabea, eta "Zuk zeuk egin" filosofiari atxikia.

Orbainen azken ekitaldia atzo bertan izan zen, RIP taldeko kide Jul Bolinaga zenaren omenezko kontzertuaren DVDa aurkeztu baitzuten. Eta aurrera begira ere ez dirudi beren erritmoa moteltzeko asmorik daukatenik. Dagoeneko aurreikusita dauzkate beste hainbat ekimen, hala nola, irailerako, punkaren eta rockaren munduan emakumeek izan duten presentziaren edo, hobeto esateko, ezpresentziaren gaineko astea. Besteak beste, aztergai izango dute generoarekin eta homosexualitatearekin lotutako gaiek izan duten garapena, jarrerari eta abestien letrei dagokienez, aste osoan zehar hitzaldiak, erakusketak, bideo proiekzioak eta kontzertuak eskainiz. Azkenik, "Lokal o" izeneko proiektuaz dihardu Ikerrek. Musika, antzerki eta oro har arte adierazpenetan hasi berriei zuzenduta dago, elkartea entsegu lokala balitz bezala erabil dezaten, baina jendaurrean.

"Gaztegin"-en azalen erakusketari dagokionez, zalantzarik gabe egin beharrekoa zela dio Ikerrek, Orbainen filosofiaren adierazgarri baita. "Gaztegin" euskal gazteriaren informazio iturri nagusia izatera iritsi zen, «badakizu, orduan ez zegoen sare sozialik». Garzonek "Egin" itxi zuenean, hutsune handia sortu zen. Geroztik betetzen joan da, baina urte haietan egindako lan haren guztiaren balioa nabarmendu beharra dagoela uste du Ikerrek.

Gora jaia!

Maider Iantzi Goienetxe

Errealitatea gure begi barrenetan gordetzen da sarri. Horrek ematen digu begiratzeko moduarekin gauzak aldatzeko ahalmena. Egoera berean ongi ala gaizki sentitzen gara. Egun goibeletan dena ilun ikusten dugu eta kostatzen zaigu burua laino artetik atera eta argi pixka bat ikustea. Bertzetan, berriz, eguzkia bezala betetzen gara eta pentsatzen dugu: "Horrela balitz beti...". Badakigu bata eta bertzea, une txarrak eta onak, denak pasatuko direla; hori da bizitza, ezta?

Barruko poza eta tristura norberak daramatza, baina kolektiboak ere izan daitezke emozio eztandak. Iruñea bisitatzen dudan aldiro besta topatzen dut, izan aste tartez edo edozein asteburutan, beti badute zer ospatu eta ospakizunaren parte izaten bukatzen dut. Urte osoan gertatzen zait hori, eta sanferminak sentimendu horren gailurra dira.

Parte, erdi-iruindarra naiz irratiz txupinazoaren aitzineko giroko kontaketa aditzean barrenean ezin kabitu, eta urtero bezala hamabiak laurden gutxietarako telebistari begira-begira, ikurrinarekin zer pasako, plazan zer ikusiko (aurten, "Autodefensa feminista" idatzita zuen oihal beltza izan da nobedadeetako bat, ikurrinaren aldarrikapen oteizarrarekin batera), eta zer mezu adituko. Jesus Ilundain Zaragueta *El Tuli* historiara pasako da txupinazoa botatzeko iruindarrek aukeratutako lehenbiziko pertsona izateagatik. Jarauta kaleko 85 urteko gizona goizeko zazpietatik omen zebilen kalean, eta 24 ordu geroagoko dianak aditu arte ez zuen erretiratzeko asmorik. Bizi osoa sanferminei zuku guztia ateratzen daramanak aise irabazi zuen bozketa, eredu ederra baita. Adin bat izaten da bestarik galtzen ez dena, baina parrandak ez du adinik eta beharrezkoa dugu, gainera, bizi ziklo osoan, era batera edo bertzera, bakoitzak gure moduan. Burua mailukatzen diguten arazo eta kezkak isiltzeko, eguneroko errutina eta albiste zurrunbilotik ateratzeko eta gure begi barrenak alaitzeko. Beraz, gora jaia! •

Politikaren dantza erotikoa

Xabier Mikel Errekondo

Abenduko hauteskundeen ondotik hasitako dantzak ez ei zuen gobernu burutzarako erreginarik koroatu. Erlauntza lau hilabetez erromeria ero bilakatu zen, erle langileak eta zanganoak elkarri ziztadaka ezker-eskuin, goiti-behiti eta frentez. Ikusiak ikusita, eta lau taldeburuak harrak izaki, ez ote guztiak zangano...?

Ekaina ere joan da eta erreginaren aulkia hartzeko desio basatiena duen Marianok hasi berri du ernalketarako bigarren hegaldi saioa, sedukziorako politika dantza zanganoetan zanganoenek estal dezaten.

Hiru partida izango ditu ordea dantzak. Lehenik, parez pare ariko dira dantza soltean, heavy, rock-and-roll edo trikiti musikaz norberaren sedukzio-mehatxu armen alarde eginaz nola paumaren lumarik dotoreenekin nola oilarraren ezproi zorrotzenekin. Lumak eta ezproiak parlamentarien orgia erromatarrean begirada konplizeak, eta probokazio lizunak, paparahots kordeetatik jaurtitako hitz-lerdezko elkar gorte egite nardagarriak bata bestearen atzetik...

Hilabetera asko jota, Felipe VI.ak bikoteka ditu behartuko tangoen desafiozko dantzara, takoi kolpeek, gominaren likitsak, igurtzien kiratsak eta praka zein kortse itogarriek azkenik bals aspergarri batera eraman arte. Palazioko pasillo luzeetan biraka etengabe dantzatuko dute zein baino zein itsusiago eta gezurtiago.

Azkenik, hats ustel hartzituak bereizezinak bilakatuko ditu, denak bat, bikotea ala hirukotea izan. Dantza ez da izanen sekulako baina. Ez. Dantzak gosea eta gogoa arrimatu egingo ditu halabeharrez, eta gerri-sorbaldatik heldutako dantzara lotu, komenientziazko bikote maiteminduen baladara.

Zangano gehitxo ezer onik ateratzeko eta nago oraingoan bai Estatuak ezarri egingo duela dantzarako doinua.

Aitortzen dut inori ez diodala dantzari plantarik ikusten, baina hauxe da nire apustua: Raxoik eta Riverak dantzatuko dute balada, Sanchezen harrokeriak ustelak izaki abstenitu eginen da... PNV bezala. •

Iratxe Esnaola Arribillaga
Hezkuntzan doktorea

Eduki suntsigarrien aroa

Maiz entzuten da gaur egungo haur eta gazteek dena orain eta hemen nahi dutela. Dena berehalakoa dela. Dena azkar doala eta dena azkar nahi dutela (helduok ere bai, ez?). Eta teknologien erabilpenak zeresan handia du horretan. Esaterako, Interneten ez da berdin irakurtzen. Jauzika irakurtzen da. Testu luzeak baino, testu labur asko irakurtzen dira. Eta interesa pizten duen hori, sakonagoa den testu hori, batzuetan. Eskuz ere gero eta gutxiago idazten omen dute haur eta gazteek. Eta ikerlariek oso garrantzitsua dela diote. Ez dela aktibitate mekaniko bat. Burmuinaren aktibitatea estimulatu eta prozesu kognitiboak eta neuromuskularrak koordinatzea exijitzen duen aktibitate bat baizik. Eta horregatik diote, irakurtzeko moduak kontzentratzeko dugun gaitasunean ere eragiten duela. Eta memorizazioan. Eta hori gutxi balitz, orain segundo batzuetan soilik bizirik iraungo duten mezu, argazki eta bideoak bidaltzeko aplikazioak ditugu. Eduki suntsigarrien aroan bizi gara. Eduki efimeroen orbitan. Modu horretan, gure "Ni" digitala ez da edukien akumulazioaren gainean eraikitzen, une horretan eta une horretarako partekatu dugun horren gainean baizik. Istant horretako espresio bat da. Eta hori da, hain zuzen, Snapchat aplikazioaren muina: bidaltzen dena, asko jota, hamar segundotan desagertzen dela (hartzaileak nolabait betikotzen ez badu, kaptura bat eginez, edo dena delako metodoa erabiliz). Eta erabileran eta finantzazioan etengabe gora egiten ari den aplikazio bat da.

110 milioi erabiltzaile aktibo ditu egunero, ia erdiak Ameriketako Estatu Batuetan eta heren bat Europan. 110 milioi agian gutxi iruditu zaigu, baina, alderaketa bat egitearren, Whatsapp berak egunero 400 milioi erabiltzaile aktibo ditu, nahiz eta guztira 1.000 milioi erabiltzaile baino gehiago izan. Eta urtean-urtean, Snapchaten erabiltzaile kopurua %50 igotzen omen da. Erabiltzaile gehienak gaztetxoak dira, edukien desagerpena gehien bilatzen dutenak eurak baitira. Inbertsiogile ezberdinak ditu, sekretupean printzipioz, eta 2.600 milioi dolar jaso omen ditu guztira (baina oraindik ez da ekonomikoki bideragarria). Eta egun, bere balio ekonomikoa 20.000 milioi dolar ingurukoa omen da (Facebookek Whatsappengatik 21.800 milioi ordaindu zituen). Hortaz, Snapchat apustu bat da.

Snapchaten hazkundea, gainera, adin guztietara zabaltzen ari da. «The Wall Street Journal»-en arabera, maiatzean AEBetan egindako azterketa bat oinarri hartuta, gaur egun, honela banatzen da Snapchaten erabiltzaileen mapa: %67,5 dira 18 eta 24 urte artekoak; %37,8 dira 25 eta 34 urte artekoak; eta %14 dira 35 urtetik gorakoak. Duela hiru urte, azken bi adin-tarteak %5 eta %2 ziren, hurrenez hurren. Snaptchatek oso positibotzat jo du hazkundea, logikoa denez. Baina oraindik ikuskizun da nola eragingo duen Snapchatek hasieratik izandako erabiltzaile gazteengan. Hauek, "gazteen aplikazioa" dela defendatzen baitute. Baina denborarekin argituko da non dagoen, berez, muina: gazteena soilik zelako duten gustuko edo eduki efimero eta suntsigarrien ezaugarriak erakartzen dituen. Hau da, eztabaida adin-tartearena den eta kontzeptualagoa den. Eta nago, kontzeptualagoa dela, eta gazteak erosoago daudela eduki efimeroen orbitan. Eta Facebooken "denbora-lerroaren" kontzeptua dela auzitan dena: edukien iraunkortasunarena. Facebook erabiltzaileak gero eta pasiboagoak baitira (gero eta argazki eta bideo gutxiago partekatzen dituzte), eta, bien bitartean, gero eta gehiago eta aktiboagoak dira Snapchat eta Periscopen (unean unekoa espresatzearen kontzeptuan indarra jartzen duten tresnak). •

Snapchat aplikazioan bidaltzen dena hamar segundotan desagertzen da. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA

JEAN VELEZ

DONIBANE LOHIZUNEN JOKO GARBIAN, SOTANA HARROTUTA

Irudiko apaiza joko garbian ari da plazan, Donibane Lohizunen. Argazkia Jean Velezek (Donibane Lohizune, 1909-1983) egina da, 50eko hamarkadan. Bigarren Karlistaldiaren ondoren Ipar Euskal Herrian errefuxiatutako familia batekoa zen, lanbidez optikaria eta 1936az geroztik argazkilari autodidakta. Jean Velezen argazki denda Donibaneko elizatik metro gutxira zegoen. Hark egin zituen argazki batzuk gure herriaren historiaren parte dira, hala nola 36ko Gerrako hainbat: Irungo sutea, Hendaiara iritsi ziren errefuxiatuak eta naziak Irungo Santiago zubian; edo Charles Chaplin Atharratzen, Hemingway Baionan, Orson Welles Euskal Herrian eta beste argazki batzuk, tartean Jose Antonio Agirre lehendakariaren ehorzketarena. Gaur egun Jean Velezen funtsak haren seme Danielen ardurapean daude. Daniel argazki-kazetaria da eta 1961etik zenbait hedabide eta agentziatan lan egiten du.

GAUR8 ireki gure leihoa